



PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	<b>OLABIDE IKASTOLA</b>						KODEA: 2017-2018	
ARLOA	INGELESA						KURTSOA 2017/18	
MAILA	DBH 1	DBH 2	DBH 3	DBH 4	X	BATX 1	BATX 2	

1	<b>ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA</b>
<p>LAUGARREN MAILAREN HELBURU NAGUSIA HIZKUNTZA IKASKETA PROZESUAN IKASLEAREN <b>AUTONOMIA GARATZEA</b> DA .</p> <p>1- Eguneroko bizitzan erabiltzeko eta ikaslearen errealitatean eta gizartean garrantzia dituzten gai ei buruz jarduteko behar den <b>hizkuntza-terminologia eta egiturei buruz hausnartzea</b>.</p> <p>2- Gelan, eguneroko bizitzan eta errealitatean, idatziz zein ahoz sortzen diren testuak <b>ulertzea</b>. Maila honetan hizkuntza espezifikoa izatera pasatzen da eta informazio gero eta abstraktuagoa kudeatzen ikasten jarraitzen dute. Testu mota ezberdinak iturri ezberdinetatik jasoko dira: CDak, pelikulak, aldizkariak, testu liburua, internet.... Elkarrizketak, testu narratiboak, deskribapenak. Informazio espezifikoa zein orokorra eskuratzeko gai izatea, garrantzitsua dena eta ez dena bereizten.</p> <p>3- Jasotako hizkuntza ezagutza erabiliz eta loturiko giza-elementuak zein kulturalak kontutan harturik, idatzizko zein ahozko testuak <b>ekoiztea</b>: ahozko aurkezpenak, eguneroko bizitzan ematen diren elkarrizketak , idatzizko testu narratiboak, deskriptiboak, iritzia ematekoak, testu iruzkinak. Landu eta ebaluatuko diren aspektuak hauek izango dira besteak beste: Koherentzia, ideien antolaketa, lexikoaren erabilera, ortografia, zuzentasun gramatikala, originaltasuna.</p> <p>4- Ikasketa prozesuan inplikaturik dauden elementu guztiekiko <b>jarrera positiboa adieraztea</b>: Atzerriko hizkuntzak eta beste kulturak ezagutzeko interesa eta errespetua, kideekiko zein irakaslearekiko errespetua, ardura, interesa, autonomia, ikasketa kontzientea...</p>	

2	<b>EDUKIEN DENBORALIZAZIOA</b>				
	<b>1. ebaluazioa</b>		<b>2. ebaluazioa</b>		<b>3. ebaluazioa</b>
6	<b>Hiztegia:</b> places in town, adjectives, food, the animal world, risks and dangers, royalty, films and television, mysteries, natural and supernatural phenomena	6	<b>Hiztegia:</b> social interaction, city life, marketing, shopping, environment, recycling	6	<b>Hiztegia:</b> parts of the body, health problems, the senses, descriptive adjectives, review
6	<b>Egitura gramatikalak:</b> -Verbal Tenses: Present Simple/continuous Past simple/ continuous Present perfect simple/ continuous. Used to. Past Perfect. Future...	6	<b>Egitura gramatikalak:</b> -1 <sup>st</sup> term tenses and grammar structures.: -Conditionals(1,2,3types) - Passive - Reported Speech	6	<b>Egitura Gramatikalak:</b> -Modal Verbs -Connectors -Gerunds and infinitives -Grammar review.

	- Relative clauses, determiners, quantifiers, comparison of adjectives, some-any, no-compounds.			
4	<b>Idazmena:</b> - A report about a person - A film review - A narrative - Connectors of cause, effect, contrast and sequence	5	<b>Idazmena:</b> - An e-mail about a problem - Synonyms - An opinion essay - Expressions to state opinions - A travel post - Connectors of addition	5 <b>Idazmena:</b> - An informal e-mail. - Informal opening and closing remarks - A description of an experience - Adjectives and adverbs
5	<b>Ahozko ekoizpena:</b> - Exchanging personal information - Discussing the news - talking about the past and present - Interviewing - Comparing past activities - Telling a story - Talking about unusual phenomena. - Students' presentations	5	<b>Ahozko Ekoizpena:</b> - <b>Comparing behaviour</b> - Expressing regret - Talking about problems and solutions - Describing a product - Talking about the future - Making a decision - Reporting what people said. - Conducting a survey - Students' presentations	5 <b>Ahozko Ekoizpena:</b> -Speculating - Talking about health - Talking about pictures - Talking about yourself, senses -Discussing an experience -Students' presentations
1	<b>Ahoskera:</b> Working on different sound pairs and their phonetic symbols.	1	<b>Ahoskera:</b> Word stress, contracted forms, intonation:compound sentences, difficult sounds, weak forms...	1 <b>Ahoskera:</b> Difficult vowel sounds
5	<b>Ahozko zein idatzizko ulermena:</b> A magazine article A TV and a film review An article A conversation An interview A discussion about language School presentations Clil culture readings  <u>The Hound of the Baskervilles</u> , Sir Arthur Conan Doyle	5	<b>Ahozko zein idatzizko ulermena:</b> An infographic A web page A report A quiz A radio programme A news report A conversation in a shop A radio interview A survey Clil culture readings  <u>The Street Lawyer</u> , John Grisham	5 <b>Ahozko zein idatzizko ulermena:</b> An online article A blog entry A discussion about health A discussion about an experiment A dialogue Clil culture readings A film

3

## IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIAI

**-Hizkuntzaren Hausnarketa:**

-Ikasleek egoera errealetan beharko dituzten tresna linguistiko zein kulturalak erakustea baliabide ezberdinak erabiliz.

- Ikasleen parte hartze aktiboa bultzatzea komunikaziorako baldintzak ezagutu araziz: errespetua, entzuten ikastea, ahozko eta ez ahozko estrategiak erakutsiz...
- Ikaslea egoera komunikatibo errealetan kokatzea antzezpenak eta aurkezpenak aurrera eramanez.
- Idatzizko estrategiak irakatsi: paragrafo banaketa, lokailuak, ideien antolaketa.
- Akatsen hausnarketa: hizkuntzaren ikasketaren prozedura autonomia izan dadila, ikasleek haiek sortutako testuen akatsen zuzenketa eginez
- Ahozko zein idazmen ulermena garatzea testu egokituak erabiliz. Narrazio eta deskribapenen irakurketa autonomia zein gidatua landuz.
- Testu mota ezberdinak idazteko tresnak eman
- Ikasketa arduratsu eta kontzientea bultzatuko da. Horretarako, berriak ez diren gai gramatikalen azalpenak egitea eskatuko diegu. Hizkuntza terminologia eta egiturei buruzko hausnarketa egitea eta barneratzea ariketa ezberdinen bitartez: hutsuneak bete, ideiak lotu, definizioak egin, aukerak egin, asmakizunak egin
- Hizkuntza irakasteko motibazioa sortu nahian baliabide ezberdinak erabiltzea: musika, pelikula, nobela egokituak etab.
- Azalpenak ingelesez egingo dira batez ere. Euskara edo gaztelania oso beharrezkoa denean, egoera puntaletan erabiliko dira. Ingelesa erabilera bultzatuko da gelako hizkuntza tresna nagusi bezala.
- Aurretik dituzten beste hizkuntzen ezagutzak erabiliko dira konparaketak egiteko.
- Ikasleen gai ezberdinen eta gramatika arloko ezagutza maila aztertzeke mota ezberdinetako ariketak egingo dira. Aukera dagoenean, ikasleei gramatika azalpenak ematea eskatuko zaie, bereziki alde aurretik ikusitako materia denean.
- Gramatika azalpenak eman ondoren ahoz eta idatzizko jarduerak aurrera eramango dira emandako egiturak barneratzeko.
- Aditz irregularren ahozko eta idatzizko ezagutzak garrantzi handia izango du maila honetan .
- Lau trebetasunak aldi berean landuko ditugu: *reading, writing, listening and speaking*. Azalpenak beti ingelesez emango dira. Kasu berezietan, beharrezkoa balitz, euskara edo gaztelania erabiliko dira.
- Bikoizketa klaseak aprobetxatuko dira ikasleak parte hartzera bultzatzeko. Ikasleek banakako aurkezpenak, debateak eta beraien arteko elkarrizketak egingo dituzte. Haien intereseko gaiak tratatzeko ere aukera emango zaie.
- Ikasleek aukeratutako gai bati buruz hiru minututako ahozkoak egingo dituzte. Horren bidez jende aurrean hitz egiteko estrategiak landuko dituzte.

4	BALIABIDEAK	
Artikuluak		
Ikt baliabideak: dvd, cda, internet.		
<b>Testu Liburua:</b> New English in Use Student's book and workbook		BURLINGTON BOOKS
<b>Liburuxka Adaptatuak:</b> <u>The Hound of the Baskeilles</u> , Sir Arthur Conan Doyle		Oxford University Press
<u>The Street Lawyer</u> , John Grisham		PENGUIN LONGMAN
<b>Filma subtítuloekin ingelesez</b>		

**Beste batzuk:**

"Round Up 4"

"Grammar Time 4"

"Grammar Practice Activities"

"Games for Grammar Practice"

"Vocabulary Games and Activities 1"

"Grammar Games and Activities 1"

Longman

Longman

Cambridge University Press

Cambridge University Press

Penguin

Penguin

5

**EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK,  
EBALUAZTZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK**

EBALUAZIOA JARRAIA IZANGO DA. EDUKIAK GEHITZEN JOATEN DIRA ETA MAILA APURKA IGOTZEN DOA. ONDORIOZ KURTSOAN ZEHAR EZ DIRA ERREKUPERATZEKO FROGAK EGINGO. KURTSOAN ZEHAR HELBURU EZBERDINAK BALORATZEKO FROGA EZBERDINAK EGINGO DIRA: IDAZMEN TESTUA, ULERMEN TESTUAK, AHOZKO AURKEZPENAK ETA HIZKUNTZA TERMINOLOGIA ETA EGITURAK BARNERATU DITUZTEN BALORATZEKO ARIKETA FROGAK PASATUKO ZAIZKIE. FROGA HAUETAN GELAN LANDUTAKO HELBURUAK ZEIN NEURRIAN MENPERATZEN DITUZTEN BALORATUKO DA. ALDI BEREAN IKASLEAREN EGUNEROKO JARRERA BALORATUKO DA: TXUKUNTASUNA, LANAREKIKO ARDURA, ERRESPETOA, ...

**EBALUAZIO BAKOITZEAN BATAZBESTEKO KALIFIKAZIOA KALKULATZEKO HELBURU GUZTIAK GUTXIENEZ 5 BATEKIN GAINDITU BEHARKO DIRA.**

**BATAZ BESTETEKO NOTA KALKULATZEKO HELBURU BAKOITZAREN PONDERAZIOA HAUXE IZANGO DA:**

**1- HIZKUNTZAREN HAUSNARKETA: % 40**

**2- AHOZKO ZEIN IDATZIZKO TESTUEN ULERMENA % 20**

**3- AHOZKO ZEIN IDATZIZKO TESTUEN EKOIZPENA % 20**

**4- JARRERA % 20**

**HELBURU BAKAR BATEAN 5 BAINO GUTXIAGOKO NOTA LORTUZ GERO, IRAKASLEAK BATAZBESTEKO EGITEA ERABAKI DEZAKE. AIPATUTAKO IRIZPIDEAK ANIZTASUNAREN TRATAERAREN TESTUINGURUAN BALORATUKO DIRA.**

6

**BERRESKURAPEN ETA INDARTZE SISTEMA**

EKAI NEAN IKASLEEK HIRUGARREN EBALUAKETA GAINDITZEKO EZ OHIKO AUKERA BAT IZANGO DUTE. LANDUTAKO HELBURUAK (ULERMENA, EKOIZPENA, HIZKUNTZAREN HAUSNARKETA) GAINDITZEN DITUZTEN BALORATZEKO FROGA OROKOR BAT PASATUKO ZAIE.

3. MAILA GAINDITZEN EZ BADUTE 4. MAILAKO LEHENENGO EDO BIGARREN EBALUAKETAK GAINDITUZ GERO, 3. MAILA HORI GAINDITUTZAT EMATEN ZAIE, EBALUAKETA JARRAIAREN IRIZPIDEA JARRAITUZ. BESTELA, DBH 4. MAILAN. EBALUAKETA ONDOREN, EZ OHIKO BI DEIALDI FROGA PASATUKO ZAIE, 3. MAILAKO HELBURUAK GAINDITZEN DITUZTEN BALORATZEKO. (OTSAILA EDO MARTXOAN ETA EKAI NEAN)